



Telebisioren zeregina euskararen normalkuntza bidean

(The function of television in the normalisation of the Basque language)



ETXEBERRIA CANALES, Hasier

ETBko kazetaria
8, Rue des Rosseaux
64700 Hendaia (Frantzia)
hasier.etxebe@wanadoo.fr

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 115-120]

Euskal Telebistak, sortu zenez geroztik, euskararen normalkuntzaren ildoan izan duen jarduna ikuspegi pertsonal eta kritiko batekin azaldu du etxe horretan hamasei urtez lanean aritutako kazetari eta idazleak: hasierako zailtasunak, gizarteari egin dizkion ekarpenak, aurpegiaritzen dizkion alderdiak, etab.

Con dieciséis años de experiencia a sus espaldas en Euskal Telebista, el periodista y escritor valora desde una perspectiva personal y crítica el trayecto de la mencionada casa en la normalización del euskara: problemas iniciales, aportación a la sociedad, aspectos reprochables, etc.

après avoir passé seize ans à Euskal Telebista, le journaliste et écrivain évalue, d'un point de vue personnel, et critique la trajectoire de cette entreprise vers la normalisation du basque: problèmes initiaux, apport à la société, aspects reprochables, etc.

1. **Aitzin solasa.** 2. **Egindako bidearen onurak.** 3. **Oraindik egin gabekoak:** 3.1. Ereduen beharraz. 3.2. Hizkuntz politika zehatza. 3.3. Hedapena. 4. **Panorama berria.**

1. Aitzin solasa

Zalantzarik gabe, interes handikoa gertatzen da telebisioren gaiak hizkuntzaren berreskurapen eta normalkuntzan zein zeregin eduki duen, edo eduki zezakeen eta dezakeen aztertzea, eta zoriondu egin nahi ditut horregatik bai Eusko Ikaskuntza eta baita Diaz Noci jauna ere, telebisioren gai hau, begiradatxo bat botatzeko besterik ez bada, gai zerrendan sartzean erakutsi duten azertuarengatik. Hizkuntzaren normalkuntza bidean askotan ez baitira kontuan hartzen hizkuntzaren beraren gora-behera intrintsekoak baino, eta telebisioren hau erabakiorra da, nire ustez, dihardugunerako.

Ez dakit eman zaidan gaiari, *Ikusentzunezko komunikabide orokorrak* izenburuari, zehatz erantzungo ote dion nik esango dudanak baina, behinik behin, entzungarri gerta bedi hamasei urte inguru langintza arras ezberdinetan Euskal Telebistan (ETB) lanean aritutako honen ikuspuntua.

Beste ezer baino lehen, kontuan eduki behar da Eusko Legebiltzarrean erabakitako 1982ko sortze legeak, garrantzi handia aitortzen diola zeregin horretan gerora euskaldunon telebisio publiko bakarra izan den ETBri¹. Euskadi Irratia ere modu beretsuan aipa liteke hemen, nabarmena izan baita, eta aurrerantzean ere hala izango da, zalantzarik gabe, euskararen finkaketan erakutsitako zeregina, baina horretaz hitz egiteko ni baino eskarmentu handiagoko lagunak egoteaz gain, neurri askoz ere biderkatzailegoa iruditzen zait telebisiorena irratia baino, eta barkatuko didazue irratia zeharka baizik aipatuko ez badut mintzaldian barrena.

Ene ustetan, duela hamazazpi urte gure hizkuntzaren egoera lastimagarriak eskura eduki zezakeen tresnarik erabakiorrena telebisioa zen, Hezkuntza Plana eta Euskararen Normalkuntzarako Legearen ondotik.

Zoritxarrez, Gasteizko Gobernuaren eskutan ez dauden gainerako hedabide publikoek ez dute deus egin euskararen normalkuntza bidean. Televisión Españolako Telenorte albiste saioan eta Radio Nacional de Españako zenbait albistegiren ostetik egiten diren laburpenak, irainak dira, egiazko

zerbitzua baino. Baten batek serio jarri beharko luke eta Catalunyan egiten den antzera, bertako hizkuntzan duintasunez jardutera behartu.

Hedabide pribatu handiek ere ez dute deus egin euskararen mesedetan. Jakinekoa da publizitatea dutela oinarri nagusi komunikabide hauek eta euskarak ez duela behar beste Coca-Cola edo Volvorik saltzen. Hala ere, gogoan edukitzeko modukoak eta eskertzeakoak dira zenbait hedabide pribatu txikiagoren jardunak: Euskaldunon Egunkaria, Argia, Herri Irratia, Euskal Herria Irratia, Gure Irratia, Irulegiko Irratia, Xiberuko Boza eta beste. Gauza bera esan liteke azken urteetan sorturiko herri aldizkari, irrati eta telebista munizipalei buruz. Merkatu propiala sortzen jakin izateaz gain, ezinbesteko bihurtu dira zenbait herritarrentzat.

Alabaina, horiek ere ez dira mintzaldi honetako mami izango. Hemen, batez ere, ETBren jarduna edukiko dugu gogoan. Eta oker ulertua izateko arriskuaz, ETBk sortu zenetik hona egindakoa Euskaltzaindiarena edo gure idazle nagusien lana baino garrantzizkoagoa izan dela ausartuko naiz esatera; bai behinik behin, ikuspegi sozial batetik begiratuta. Izan ere, hizkuntza zer edo zer izatekotan, horixe baita: giza-tresna komunikatibo bat, erreminta sozial bat, eta mende bukaera honetan telebisioa etxekotu zaigun honetan, ezin uka bera denik gure bizitzaren arlo askoren finkatzailea, baita hizkuntza berarena ere, neurri handi batean..

Alde batera, beraz, Ikastolek gure historian eduki duten garrantziaren pareko balioa emango nioke nik ETBri, lehenik eta behin bata eta bestean aritutakoek erakutsi behar izan duten heroitasuna eta ezagutu duten malda gora guztiz ezberdina izan dela aitortuz.

Bistakoa da ikastolen mugimendua 60garrenetan abiatu zen garaian lege guztiak desafiaturik lanean hasi izan ez balitz, ez zela izanen gaur gure hizkuntza galbidetik aterako zukeen Ama Birjinik. Seguru asko Iparraldean dabilzan bezain galdurik geundekeela hizkuntzari dagokionean Hegoaldean ere, eta nire belaualdiak, esaterako, ez zukeela ezagutuko oraingo hizkuntz garapen eta mailarik. Hainbeste lan egin zuten gizon eta emakume ia beti anonimo haiei ez zaie sekula eskertu ahal izango merezi dutenik.

Ikastolak izan dira gerora ere ezagutu dugun eskaera, presio eta, dialektikoki bada ere, hezkuntza antolamenduaren muina. Ikastolak izan dira urte askotan zehar euskararen aldeko gizarte apustuaren erreferentzia eta babes bakar, Autonomia Erkidegoan eredu publikoa azkartu

1. EITB 1982an sortu zen eta 5/1982 Sortze Legearen Atarikoaren arabera, bi zutabetan oinarritzen da: batetik, Autonomia Estatutuak aitortzen dizkion agintepideetan, eta bestetik "funtsezko herri-zerbitzu deneko irizpidea aitortuz. Bere sorrera honetarako da: "...herritar euskaldunak argipide eta politikan eskuhartzeko lehen-lehen mailako bide direnez eratzten dira, eta bai hezkuntzarekiko eta euskal kulturaren suztapen eta zabalkundearekiko gure erapidetzaren oinarritzko lankidetasun-tresna direnez ere, euskeraren suztapena eta zabalkundea bereziki kontuan izanik eta, hori guzti hori, Autonomi-Elkarte honetako herritarren eskubide eta irizpideak behar bezala egiteratzeko eustazpi eta oinarri" (sic).

den arte bai behintzat. Hortik aurrera, denok dakizue neuk beste: inork ez dauka euskalgintzaren eskusibarik.

ETBren sorreraren eragilea ere, neurri handienez, ikastolen mundutik sortutako eskaera izan zela, esango nuke, eta areago, ikastoletan ikasitako lehen eta bigarren labekada haietakoak izan ginen ETBren lehen pausoen aurpegi eta ahotsetako asko².

Inongo telebisio euskaldunik ez zegoen ETB sortu zen garaian. Gaur ere ez dago besterik, bere zentzu osoan, behinik behin. Erabaki politiko batek ekarri zuen, bada, ETB gainerako telebisioren plaza analogikora. Erabaki politiko eta koiuntural batek, agian gaur egunean posible izango ez litzatekeen batek derrigortu zuen bere jaiotza eta hala hasi zen ibiltzen, betiere sortu zutenen, politikarien, itzalera eta menara. Telebisio izatea baino lehen, euskararen berreskurapenean tresna izatea baino ere lehenago, beti eduki baitu ETBk, dauka eta edukiko du, seguruenez eta zoritxarrez, beste zeregin nagusi bat: aginpidea duten politikarien mesedetan jardutea.

Antza denez, ez da hori gure telebisioko bakarrik daukan berezitasuna. Izan pribatu edo izan publiko, munduan gutxi dira gertaera lazkarri horretatik kanpo daudenak. Aleren bat Europaren ipar eta erdialdean eta ez gehiagorik, nik dakidala.

Izanak izan, hel diezaigogun geureari eta aipa dezagun ETBk zer-nolako ekarria eduki duen euskalgintzan, edo hobeto nahi bada, Euskararen Normalkuntza bidean. Ez da ahuntzaren eztula izan, zorionez.

2. Egindako bidearen onurak

Abiapuntua gogorra izan zen oso. Eragozpen nagusi batzuk aipatze aldera: ez zegoen euskarazko telebisio aurrekaririk, gizartea egoera diglosikoan zegoen eta ikusentzulego potentzialaren zatirik handienak, alfabetatu gabea izateaz gain, euskalki eta lokalismoetan aurkitzen zuen mintza eredurik jatorrena, idazteko pentsatua zegoen Euskara Batuan eginiko oro zitzaizalarik arrotz eta oso urrutiko.

Onerako edo txarrerako, ETBk eginiko bidea oso eraginkorra izan da arlo horretan. Alde batetik **Euskara badela** frogatu du. Gurea hizkuntza

“ **Telebisio izatea baino lehen, euskararen berreskurapenean tresna izatea baino ere lehenago, beti eduki du ETBk, dauka eta edukiko du, seguruenez eta zoritxarrez, beste zeregin nagusi bat: aginpidea duten politikarien mesedetan jardutea** ”

gutxiagotua eta potentzialki lau herritarretatik bakarrik ulertzeko modukoa izan arren, normaltasun irudia emanez, nolabait homologatzea lortu du ETBk. Elizabeth Taylor edo Apatheen buruzagia euskaraz entzutea ohituak gara jada eta ez gaitu harrituko, egun batean Clinton bera, edo Gadafi, euskaraz entzuteak ere.

Baina egin behar horretan ez zegokion zerbait ere eragin du ETBk: aho hizkuntza bihurtzen lagundu dio, idazteko soilik pentsatua zegoen Euskara Batuari eta, aldiz, ez du asmatu ahozko eredu propiala eta landua proposatzen. Hizkuntza laua, errejistro ezberdin eta argotik gabea bihurtu da gurea. Euskalkiek ez dute eduki ia lekurik oraintsu arte.

Egia esan behar bada, ez da egon horretarako patxadarik, dirurik eta jakituriarik, eta hala, datozen belaunaldiek erabiliko duten ahozko eredua, nola-halako oinarrietatik abiatutakoa izango da. Andu Lertxundik eta beste batzuek berrikitan adierazi dutenez, kalitatea falta du gure hizkuntzak: adierazi nahi eta ezina, horixe gure drama. Erdalkeriak muineraino kutsatuak gabiltzala *suposatzen* dut eta horrek arrisku gogorra *suposatzen* du euskarentzat, ezpairik gabe³.

2. ZALDUA, Xabier; LIZARRALDE, Elene; ALDAMIZETXE BARRIA, Estepan...

3. "Erdararen erretorika bera aplikatzen ari gara bazter guztietan: administrazioko agiritan, testu didaktikoetan, kazetaritzan, literaturan. Gaztelaniak, ordea, mendeetako usuz eta abusuz garatu du erretorika hori. Aldiz guk, garapen urriko hizkuntza bateko hiztunok, sedimentazioz eta lurjausiz osaturiko erretorika hori imitatzen dugu, gurdi astun horren ibilerari eder irizita. Halatan, euskarak bere baitako ahalbideak galtzen ditu, eta ahalbideekin batera, baita hizkuntza bati bere barne-barnetik darion bizi-poza dastatzeko aukera ere". "Telebista baten programazioa jenero desberdin eta ondo bereziak badaude ere, hizkera beti berdin batek astuntzen eta agortzen ditu programak, oin askorentzat egindako zapata pare bakar batek ere oin askorentzat ibilera baldartzen duen bezala, beste horiena herrentzen, hango haien orpoak haragi bizian jartzen..." LERTXUNDI, Anjel. GARENAREN NEURRIA. 25 koska zurubi luzean gora eta behera. Tolosa: Galtzaundi, 1999.

“ Zailagoa da kazetari batentzat euskaraz lan egitea, gaztelaniaz jardutea baino. Tradizio ezak eta erabili beharreko euskara guztiz arautu gabe egoteak nekezagoa egiten diote bere lana euskaraz ari den kazetariari



Izan zen, hala ere, garai bat, duela hamarren bat urte, zeinetan Mari Karmen Garmendia andrea sartu berria zen Hizkuntza Zuzendaritzara. Bilera handi bat antolatu zuen hemendik oso hurbil, Igeldoko gainean. Batez ere kazetariak eta komunikabideetan gabiltzan idazleak ginen han. Gure eskaera guztiak grabatuta geratu ziren mikrofonoetatik jasota, ederki grabatuta gainera: petrifikatuta esanen nuke. Han eginiko dozenaka eskaera eta aholkuren artean, bazen bat guztiz garrantzizkoa, gutxi gora behera honela zioena: gaur egun zailagoa da kazetari batentzat euskaraz lan egitea, gaztelaniaz jardutea baino. Tradizio ezak eta erabili beharreko euskara guztiz arautu gabe egoteak nekezagoa egiten diote bere lana euskaraz ari den kazetariari. Euskaraz ari den kazetaria, hedabide publikoetan ari dena behintzat, gaztelaniaz aritzera ez derrigortzeko eskatu zen han. Lagundu egin behar zitzaioela eta zaindu egin behar zela euskal kazetaria, alegia. Hori zela bide bakarretako bat kazetari eredu zintzoa sortzeko.

Alabaina, handik hona, ederki ikasi behar izan dugu zenbait kazetari euskaldunek erdaraz. Ez dut alderantzizkorik ikusi: beti bezala euskaldunoi egokitu zaigu elebidunak izatea eta gainera bi hizkuntzetan artez ibiltzea. Jakin nahi nuke munduko zein beste aldetan duten guk adinako meriturik kazetariak polibalentziari dagokionean.

Neurri handi batean, beraz, nola-halako euskara erabiltzen duten kazetari, aurkezle eta bikoiztaileen bizkarretik hazitako euskara da eta izango da etorkizunean gurea. Adierazteko gaitasunean eta ñabarduren aberastasunean baino gehiago, zuzentasun aseptiko eta akademikoan oinarritzen dena; akats edo hanka

sartzearen beldurrez adierazpide berrien sorkuntzatik urruntzen gaituena. Hala beharko du izan, ETBren ibilpidearen lekuko izan garenok ederki baino hobeto baitakigu, sena eta inprobisazioa izan direla, batez ere, erabilitako armak eta beste ezertarako aukerarik ez zaigula eskeini ia. Egia esan behar bada, egin beharraren premiak harrapatuta egin du lan, ETBko komunikatzaileak. Trenbidea trena pasatu ahala egiten ibili izan gara beti.

Gaitzerdi, hala ere. Esan bezala, normaltasun itxura emateko balio izan baitu ETBk. Bi zentzutan gainera: alde batetik, geuri euskaldunoi erakutsi digu izan bagarela, eta bestetik erkide erdaldunei erakutsi die ondoko katean, trikitixa eta futbolista artean galdurik, badirela sioux batzuk, noizik eta behin gauza sakonagoez ere euren hizkuntzan mintzatzeko gai direnak.

Ondo edo gaizki, horixe izan da ETBk frogatu duen beste gauzetako bat: **zernahitarakoa dela euskara** edo behintzat, ETBri esker ezagutu ditu euskarak sekula ezagutu gabeko arlo eta parajeak. Nolabait esateko, Euskal Unibertsitateak beste neurri batean egindakoa bera egin du: sekula ibili gabeko lurraldeetan ibili (produktio dramatikoetan, dokumental genero guztietan, marrazki bizidunetan...), eta ibiliaren ibiliz, ibil daitekeela frogatu. Jada inork ez dezake esan, adibidez, mendi hizkuntza soila denik gurea.

Gaur normaltzat dauzkagun bi gauza horien argazki normaldua ematen, **euskara izan badela eta gainera zernahitarakoa dela**, asko lagundu du ETBren jarduerak.

3. Oraindik egin gabekoak

3.1. Ereduen beharraz

Hizkuntzaren aldetiko gurari batzuk aipatuak ditugu lehenagotik: errejistro ugaritasuna, euskalkien presentzia, argot ezberdinen beharra... zailak dira konpontzen horiek guztiak. Ezin eska dakioke ETBri gizarteak berak sortzen ez duen eredurik eskeintzeko. Artifizio hutsean oinarritzeko, alegia. Gehienez ere hitz bat edo beste jar dezake modan, *puztarriak*, esaterako, baina hortik hizketa eredu osoak proposatzera badago tartea. Gizarteak berak sortu behar du hori lehenik. Baina, nola sortuko du gizarteak halakorik iturri nagusienetakoa duen telebisioak ez badio eskeintzen zer kopiaturik?

Galdera honek ez dauka erantzun argirik, baina geldirik ez geratze aldera, eta emaitzak ikusi arte esperimintatzeko besterik ez bada ere, bi gauzatan behintzat saia gaitzke.



Alde batetik, gutxienekoak betetzen dituen kazetaria, aurkezlea edo dena delakoa, askatu Euskaltzaindiaren harlusa astunetik. Libre utzi. Agian akatsak eta ausardiak ekar baitezakete ezer berririk.

Beste alde batetik, idazleak hurbildu telebistagintzara. ETBk ez du hori egiten jakin oraino. Goenkaleko miseriak idazteko baino ez da ia beste ezertarako erabili izan euskal idazle miserable eta gaizki ordaindua. Baina gustatu ala ez, eurek eduki dezakete, baten batek edukitzeotan, ate honetako giltza. Idazleak arretaz behatzen dio kaleko hizkuntzari eta hizkuntzaren lilurak bizi du, besteak beste. Nor hoberik, beraz? Fakultateetatik trumilka irtendako filologo orojakitun horiek, agian? Ez eta pentsatu ere. Horiek gera daitezela epaileen itzulpen zehatzetarako, dokumentu garrantzizkoen xehetasunetarako, Euskaltzaindiako bilera aspergarrietarako edota Sarasola, Juan Gartzia eta horrelakoekin gau osoak kakotx baten gora-beheran pasatzeko. Hemen hizkuntza bizi dardugu, hizkuntza erosi dugu, hizkuntza zikinaz, hizkuntza malguaz, hizkuntza kutsatu eta kutsatzaileaz... Ez dira horiek sekula gramatikoentzako lanak izan.

Kazetal eredu jasoaren beharra aipatu du berrikitan Antton Aranburuk, Euskadi Irratikoak. Arrazoa du horrek ere. Gauza guztien faltan gabilza eta hori ere behar dugu, baina gauza bakoitza bere lekuan, ez dezakete berdin hitzegin Clint Eastwoodek eta Maddalen Iriartek, eta hori da, gutxi-asko gertatzen zaiguna.

3.2. Hizkuntz politika zehatza

1986garren urtean, Jose Maria Gorordok, orduan Euzko Alderdi Jeltzaleko esperantza zuria zenak, ETB2 sortu zuenetik, ez gara sekula gehiago Euskal Telebista izan. Euskal Telebista Bat izatera pasatu ginen. Esan dezadan bidenabar, harrezkero gauza eta kontu asko bihurtu zaizkigula "euskal". Euskaltrans, euskolabel, euskaltour... oilaskoak eta torlojuak ere euskal dira orain. Gora-behera handiak eta ugariak ekarri zituen gertaera horrek gerora. Batzuk besterik ez ditugu aipatuko hemen.

Anaia txikia bihurtu ginen. Azpiegitura eta dirua banatu behar izan zen bi kateen artean eta bai Gorordok eta bai Ortuondok Euskal Irrati Telebistako Zuzendari Orokorrek, baina batez ere Iñaki Zarraoak (1991-99), obsesio bat eduki zuten euren gidaritzaldian: ehuneko hogeiko audientzia lortzea, bi kateen artean.

Aldaketa kualitatibo handia izan zen hura. Sortze helburu zehatzak zituen Telebistak Publiko izatetik, inguruko telekatea pribatuekin lehiatzera sartu ginen. Ohi denez, txikienak galdu zuen, ETB1ek: ia mutu bihurtu zen gure katea. Kirolak,

erretransmisio folklorikoek eta bikoizketarik behar ez zuten produktuek (Mister Bean, Burusoiltxo, Algara...), betetzen zuten, eta dute oraindik ere, ia programazio osoa. Debate programak, filma bikoiztuak, aktualitateari buruzko dokumentalak... desagertu egin ziren programaziotik. Urtetan egon gara gaueko ordurik onenean, *prime-time* esaten dioten horretan, gustu eztabaidagarriko marrazki bizidun japoniarrak ikusten. Inongo telekatetan ez zen gertatzen halako gertera lazkarririk, iraingarririk. Gutxi edo asko, telekate guztiek disparatzen zituzten euren kainoiak gaueko bederatziretan. Gurean ez. Guretat marrazki bizidun ganoragabeak.

Goenkale, Bertatik Bertara eta Karaokea izan dira azken urteetako salbuespenik aipagarrienak. Telenobela bat, edozer gauza sartzeko balio duen zaku bat eta haurrek erritmo berriak ikasteko balio duen programa bat. Ez nuke esango telebistako eredu propiala eta normaldua osatzeko lain direnik osagai horiek.

Hala ere, baten batek esan dezake, oraindik ere ETB1 dela katearik garestiena eta, beraz, ez dagoela gaztelaniazko katearen azpitik. Baliteke. Baina nork du hemen informatiboa gaueko bederatzietan? Ez al da hori aski seinale zein den menpeko eta zein nagusi ikusteko? Eta gainera, euskal katearen albistegiak ez al dira gaztelaniazkoaren itzulpen soil eta laburragoak? Eguneroko albistegietako editoreak nondik abitzen dira, euskarazkotik ala gaztelaniazkotik?

Gezurra badirudi ere, euskararen normalizatzarako hain erabakiorra izan zitekeen erakunde batek egin ditu horrelakoak eta handiagoak, eskandalu publikorik emarazi gabe eta, aitzitik, emaitza politiko-publizitarioak ateraz.

Bestalde, Zarraoaren garaian, produkzio sistimak ere zeharo aldatu ziren. Bekarioak lanpostuetan ugaltu, kontratu tenporalak sarriegi, lana prekarizatu... Lehen etxean bertan egiten zena, kanpoan egiten hasi zen, normalean beti ekoizpen-etxe berei enkargua emanez: Pausoka, Anasagasti, Amigo... Aberrazio terminologikoa sortu zen horrela, lanak kanpoan enkargatu arren Barne Produkzioa deitzen baitziote oraindik ere halako lanari. ETBko talde profesional ugari desagertu zen, programen ardura zutenak esaterako, eta beste lantalde askorengan, desmotalazioa eragin zen. Lehen taldeka eta eztabaiden ostetik erabakitzen zena, goitik behera etortzen zen aginduta, Pello Sarasola, Mikel Urretabizkaia eta Jose Mari Otermin bezalako pertsonen bitartez.

Zarraoarekin batera eurak izan dira azken urteotako programazioaren arduradunak, Joseba Arregi eta Mari Karmen Garmendia Kultur Sailburuen agintaldietan.

Besteak beste, euskarazko katean honakook egitea ahaztu zaizkie: zinema euskaraz



Euskal Telebistako aurkezle batzuk.

eskaintzea, zerbitzuzko programak zabaltzea, eztabaida saioak antolatzea, nazioarteko aktualitateari buruzko erreportai programak egitea... Lehen euskaraz ziren programa batzuk, egun batetik bestera gaztelaniaz egin izan dira aldaketaren arrazoirik batere emateke: Donostiako Zinemaldia, eztabaida eta kultur saioak... Ezin esan, beraz, telebisio normaldua eduki dugunik azken urteotan euskaldunok. Ezin esan eremu guztietan ibili denik harro euskara.

Gainera, ez dakit ohartu zareten, ETB1ean gaztelaniaz hitzegin dezaketen bakarrak kirolariak dira. Gainerako guztiak (politikariak, intelektualak, kaleko jendea...) derrigorrez bikoizten dira, bai albistegietan eta bai bestelakoetan. Aldiz ez da harrizkoa izaten futbol partidu baten erdian Clemente, Guerrero edo beste norbait gaztelaniaz entzutea. Inork ez du sekula hitzik ere esan irizpide honi buruz.

Ez dago, beraz, argi zein den hizkuntz politika ETB1ean eta hori ere aztertu eta finkatu beharra dago.

3.3. Hedapena

ETBk orain arte ganoraz konpondu ez duen arazo nagusi bat ere geratzen da aipatzeko: euskararen lurralde osora iristen ez du asmatu.

Esan beharrik ez dago, beste administrazio batzuren menpekoak direla Iparraldea eta Nafarroa, baina egin den testimonialismoa baino haratagoko bildea ibiltzerik ere bazegoen. Bi hitzetan esateko, ETBk ez du asmatu Nafarroa

eta Iparraldeko herritarren bizitzetan sartzen, eta zalantzarik gabe azkar baino lehen egin beharreko zeregina du hori, tratu politiko-administratiboak eginez baina, batez ere, programazio egokia eta egokitu burutuz. Ez da aski ondoko kateetan ikusten dena kopiatzea. Proposamen propialak egin behar dira, lekuan lekuko berezitasunak aintzakotzat hartuta.

4. Panorama berria

Honez gero jakinaren gainean egongo zarete: aurten bertan hasita, etxean jasotzen ditugun kateak ugaltu egingo dira txitak bezala. Katea bat datorren lekutik sei edo zortzi katea etorri ahal izatea ekarriko du, besteak beste, digitalizazioaren teknika berriak. Grupo Correo, Prisa eta enparauak ari dira jada finkatzen udazketenik aurrera eskeiniko digutena. Telebisio talde handienek deskonexioak dituzte asmoen artean (Tele5, Antena3...). Ezerk ez die eragotziko ETBk adineko hurbiltasuna eskeintzea. Orain atoloia dena, bihar bertan, ez etzi, hondartza izango da eta ETBk horrela jarraitzekotan, hondartza ia infinito horretan (satelitea, kablea...), euskarazko hondar ale bakarra izango dugu.

Zer egin daiteke? Ez dago erraza erantzuna. Zoro xamarra eman dezakeen arren, hara hemen aukeretako bat: euskarazko kateak ugaltu, hondartza horretan euskararen presentzia ziurtatua gera dadin.

Hori egin ahal izateko dirua behar da jakina, eta jendea, irudimena, adorea eta erabaki irmoa. Beste biderik ez dago baldin eta garai berrietara egokitu nahi bada.